

<i>Berdintasun zerbitzua</i>		<i>Getxoko udala</i>
Gaia: BERDINTASUN KONTSEILUKO BILERA		

Bileraren datuak:

Data: 2023-03-27

Lekua: Villamonteko Kultur Gela

Ordua: 16:30

Bertaraturikoak:

Bilgune feminista: Uxune Iriondo Urbistazu.

Gizatiar: Marta Barrie Borrás.

Bidea Eginez: Estibaliz San Sebastián San Cristobal.

Eskuz Esku: Marta Ortiz Pereiro.

EAJ-PNV: Keltse Eiguren Alberdi.

PSE: Mihaela Jilavu Diaconescu.

EH Bildu: Nerea Guijarrubia Garzia

ELKARREKIN PODEMOS-EP: Paula Amieva Clemente.

PP: Javier Elorza Hormaeche.

Presidencia: Carmen Díaz Perez.

Secretaría: Igone Güemes Zarate.

Gai-zerrenda:

- 1) Aurreko aktaren onarpena.
- 2) Emakume eta Gizonen Berdintasunerako V. Plana aurkezteko jardunaldi parte-hartzailea.
- 3) Galde-eskeak.

Carmen Díaz, Gizarte Kohesioko zinegotziak hasiera ematen dio saioari, bertaratutakoei ongietorria emanez.

1. Aurreko aktaren onarpena.

Aurreko bileraren akta onartzen da, 2023ko otsailekoa.

2. V. Planaren aurkezpena.

Dominique Saillardek eta Laura Modonatok, Oreka Sareko kideak, V. Berdintasun Plana eraikitzeko orain arte eman diren urratsak aurkeztu dituzte, bere edukia eta harreman eta justifikazioa 2022an aurkeztutako emakumeen eta gizonen arteko berdintasun diagnosiarekin.

Aurkezpen honen helburua Kontseiluko partaideek egin ditzaketen ekarpenen aurreko pauso gisa zehazten da.

Aurrekari gisa, aurkezten diren neurrien zirriborroaren aurreko ibilbidea azaltzen dute: Aipatutako Berdintasun-diagnosia eta Getxoko elkarte-sareko hainbat emakumek parte hartu duten partaidetza-prozesua, zehazki Emakumeen-Etxearen eta ahalduzko-eskolaren parte direnak (aipatutako prozesuan 19 emakume hurbildu zirela zehazten da).

Bileran zehar aurkeztutako koadro-neurrien edukia postan erantsiko da. Gainera, zehazten da ekarpenak egiteko epea **apirilaren 17ra** arte zabalduko dela (ekarpenak "Berdintasuna" postara bidali ahal izango dira). Eta egindako ekarpenak koadro-neurrien azken zirriborrarako kontuan hartuko dira.

Jarraian, aurkezpena bitartean egindako esku-hartzeak zehazten dira:

1. ARDATZA: Gobernu ona

Bilgune Feministak iradokitzen du ardatz honetako neurrien-koadroan ez dela ikusten euskararen bultzadarik, bereziki kulturartekotasuna aipatzen denean. Gainera "feminista" hitza faltan somatzen du erredakzioan.

Elkarrekin Podemosek galdetzen du ea erakunde autonomoen ordainsari-auditoriak eta berdintasun planak batera egiten badiren (2.1.2 eta 2.1.5 bitarteko neurriak). Oreka Sareak baietz erantzuten dio, bi prozesuak erakunde autonomo bakoitzean batera egiten direla adieraziz.

2. ARDATZA: Emakumeen ahalduntzea eta balio aldaketa.

Emakumeen Etxea irakitzeak ekarriko duen Berdintasun-zerbitzuaren paradigma-aldaketa azaldu da. Zehazki, berdintasun teknikari bat kontratatuko dela kontratazio-pleguaren bitartez azaltzen da. Horrek, bi berdintasun teknikari egotea ekarriko luke, bata LPZren barruan eta bestea kontratazio bidez, azken honek Emakumeen Etxeko eta Ahalduntze Eskolako zerbitzuak programak eta jarduerak bideratzeko. EH BILDUK eta Bilgune Feministak LPZren barruan berdintasun teknikarien zenbatekoa zabaltzea iradoki dute, nahiz eta bigarren kapituluko teknikaria kontratatu. Kontseiluko lehendakaritzak erantzun du, alde batetik, berdintasun teknikari bat eta bi dinamizatzaile kontratatuko direla, eta Berdintasun-zerbitzu osoa Emakumeen Etxera eramango dela, neurri handi batean berdintasun-zerbitzuko plantilla handituz.

3. ARDATZA: Indarkeria matxistarik gabeko bizitzak.

Bilgune Feministak adierazten du neurri gehienak biktimei zuzenduta daudela, erasotzaileak dauden guneean eraginik izan gabe. Erasotzaileak interpelatzeko eta horretara bideratutako neurriak sortzeko beharra azpimarratu da. Ildo horretan, Fokua biktimengan oso zentzutatuta dagoenaren inguruan eztabaidatzen da.

3. Galde-eskeak

EH BILDUK ekarpenak alderatzeko Kontseiluaren bilkura bat egiteko aukera planteatzen du. Kontseiluko lehendakariak erantzuten du bidaltzen diren ekarpenak berdintasun kontseiluak kontrastatuko dituela.

Gainera, iradokitzen da, etorkizunari begira, bilkuraren aurretik neurrien eskema partekatzea, landuta eraman ahal izateko. Kontseiluko lehendakariak erantzuten du aurkezpen jardunaldia denez horregatik ez dela aurrezko partekatu.

Saioa bukatutzat ematen da 18:35tan